

Nafarroaren eguna

Egitaraua • 2

Hamaika ekitaldi antolatu dituzte goizetik gauera bitarte

Elkarrizketa • 3

Amaia Castorene: «Talde askorekin elkarlana egiten dugu»

Kulturaldia • 4

‘Guk ta Guk-tarrak’ ikuskizuna estreinatuko dute bihar

berria

2015eko apirilaren 24a

Testuak: Araitz Muguruza Eizagirre



Baigorri, euskaldunen topalekua

Pirinoen bi aldeetako nafarrak bilduko dira igandean, Nafarroaren Egunean; festa eta aldarrikapenak bat egingo dute egun osoan.



Kalean izango da festa Nafarroaren Egunean. BOB EDME/LE JOURNAL

Historikoak eta kulturak batzen dituen herri bat irudikatzen da urtero-urtero Baigorri egiten den Nafarroaren Egunean. 36. aldia izango du aurtengo egunak, eta egun osoko festa antolatu dute.

Zatiketak alboan uzten dituen eguna

Mugak norberak bere buruari jartzen dizkionak izaten dira, sarri. Askotarikoak. Euskal Herriak badu berea, herri-tarrak elkarrengandik aldentzen dituena. Gehiegitan, gauza onerako. Baina muga ikusezin bilakatuko da igandean Baigorri (Nafarroa Beherea), egingo den Nafarroaren Egunean. Basaizea elkarteak antolatu arren, beste hainbat herritako jendearen laguntza izango dutelako eguneko ekintzetarako.

Nafarren arteko harremanak sartzeko helburua baitauka Nafarroaren egunak. 1979an sortu zuten, Baigorriko eskaintza kulturala nahikoa eskasa zela iritzita. Euskarak ere indargune handiegirik ez zuen garai horretan, eta pentsatu zuten, Nafarroaren Egunaren bidez euskaldunen ezaugarri nagusietako bi erdigunean jarriko zituztela. Horretarako, Kul-

NAFARROAREN EGUNA

Igandean

- 10:30.** Txalaparta.
- 12:00.** Baigorri, Kilimon eta Txantreako ziganteak eta Altsasu, Otsagabi eta Arrolako dantzariak, Elizako plazan.
- 13:30.** Jauziak txaranga.
- Goiz osoan zehar.** Eskulanen erakusketa, elizako plazan.
- 14:00.** TEK elektrotxaranga eta Oxabi kaleetan barna.
- 14:30.** Bazkari nagusia.
- 15:00.** Bertso saioa: Odei Barroso, Julio Soto eta Iñaki Aleman.
- 17:00.** Dantza ikusgarria, plaza nagusian: Altsasu, Otsagabia eta Erriberako dantza taldeak.
- 18:30.** Jauziak Ezpela txaranga.
- 21:30.** Erromeria, plaza nagusian
- 19:00** Kontzertuak, Xokoa gunerri nagusietako bi erdigunean jarriko zituztela. Horretarako, Kul-

turaldia ere antolatzen dute, eta apirilean hainbat ekitaldi antolatzen dituzte. Ziklo hori amaitzen duen eguna da Nafarroaren Eguna.

36 urte ditu Nafarroaren Eguna, eta urte horietan guztietan egindako harreman sarea indartsua da. Amaia Castorene Basaizea elkarteak idazkariaren esanetan, hainbat herritako taldeekin dituzte hartu-emanak. Gehienak nafarrak dira, baina tartean, badira bizkaitarrak. «Lekeitioko talde batek urteak daramatza Nafarroaren eguna etortzen, eta dagoeneko ez dute hutsik egiten».

Giro ederra egun osoan

Aldarrikapenekin batera, festak ere izango du tartea etzi. Goizetik gauera bitarteko jaia prestatu dute, eta musika, dantza eta jatekoa izango dira nagusi. Baina ekitaldi berri batzuk ere lotu dituzte. Azken urteetan bisitarien kopuruak behera egin zuela ikusi zuten, eta, horregatik, eskaintza zabalagoa egitea erabaki dute. Haur, gazte eta helduentzat egokitu dute egitaraua, eta, aurreko urteetan ez bezala, bazkaltzeko garaian ere ekitaldiek ez dute etenik izango. Dultzainak, trikilarriak, txarangak... jai giroa izango da nagusi.

Ohiturari jarraituz, Seaska ikastolen elkarteak emango du bazkaria, eta, haren ondotik, kantaldia izango da. Arratsaldean, bertso saioa izango da Julio Soto, Odei Barroso eta Iñaki Alemanekin.

Iluntzean, berriz, kontzertuak izango dira nagusi. Xokoa gunean Itzarrren Semeak eta Holako taldeen emanaldiak izango dira. Eta oraindik ere parrandan segitzeko gogoia dutenek ere izango dute zer ikusi eta dantzatu, Tiri & Terry Dj-ek jarritako musikarekin girotuko baitute gaua goizaldera arte.

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.basaizea.com

Komunitate bat, hamaika abantaila **berrialaguna**



**Nafarroa eta Euskara
BETI AURRERA!**

Redin kalea, 2 • 31001 IRUÑEA • Tel.: 948-22 05 97




**ZALDIKO MALDIKO
KULTUR ELKARTEA**

Euskaldunon artean ederra da elkar ezagutzea

Antsoleaga, 9 • Tel.: 948-21 04 30 • IRUÑEA

**ORREAGA
FUNDAZIOA**



Alfontso Borrokalarriaren kalea, 4
solairuartera, 2. bulegoa
31007 IRUÑEA - NAFARROA

Komunitate bat, hamaika abantaila

berrialaguna



**PRESO ETA
ERREFUXIATUEN
ALDE**

Nagusia, 22 • Tel.: 948-46 01 62 • ETXARRI-ARANATZ

«Egun honek oraindik badu indarra»

Amaia Castorene •
Basaizea elkarteko idazkaria

Nafarroaren Eguna «sinbolikoki» duen indarra mantendu egin behar dela uste du, egun horren bidez herri izaera batzen delako.

Baigorriko Kulturaldia eta Nafarroaren Eguna antolatzen diren egunak, hainbat herriren laguntza izaten dute; Amaia Castorene (Baigorri, Nafarroa Beherea, 1988) elkarteko idazkariaren ustez, horri esker da eguna horren berezia. **Zein beritasun izango ditu aurten Nafarroaren Eguna?**

Bereziki, plaza giroa indartzen saiatu gara, giro herrikoia. Gogo eta bat egin dugu, lehengo Nafarroaren egunekin alderatuta askoz ere jende gutxiago bertaritzen baita. Konturatu ginen haurren gunerik ez genuela, eta arrazoi horrek ez zituela erakartzen familia asko. Bestalde, kontzertu edo dantzetatik kanpo ere,

proposamen anitzagoa egin saiatu gara. Esaterako, egunaren hastapen-hastapenetik, baita bazkaritarako garaian ere, beste-lako sorkuntzak proposatu ditugu, dantza ikuskizun garaikidea edo folk kontzertu bat kasu.

Nafarroaren egunak, euskara eta kultura indartzeaz gain, Euskal Herri osoko herritarren arte-

ko harremanak sendotzeko xedea du. Nolakoak dira harreman horiek?

Nik aski egokitzen ditut. Batzuentzat, Nafarroaren eguna zita sahiestezina da. 30 urte dituzte ekitaldiak, eta sumatzen da batzuentzat ohitura dela. Nafarroa-ko talde ugariekin harremanak ditugu, baina saiatzen gara hartu-

eman gehiago egiten. Egia da lehenengo lotu genuen jendea inguruko bailaretakoa izan zela. Orain urrunago jotzen dugu, eta talde ugariekin elkarlanean aritzen gara.

Zein herriekin dituzue adiskidetzak?

Otsagabia, Lizarra eta Tuterarekin lotu ditugu hariak azken urteetan. Ez dira egun bakarreko harremanak: guk Nafarroaren egunera gonbidatzen ditugu, eta haiek, gero, beste egun batzuetara joateko deitzen digute.

36 urte beteko ditu aurten Nafarroaren egunak. Egon al dira al daketa gutxi batzuk urte hauek guztietan?

Testuingurua aldatu da segurua izateko udaleko ordezkarien babesa dugu-, baina uste dut egun horrek baduela bere garrantzia, borrokan segitu behar baitugu. Ez da manera berdinean eramaten gaur egun, baina oraindik ezagupenik ez daukagu, eta gure izatea ukatu zaigu. Horrelako egun batek oraindik badu indarra, sinbolikoki bada ere. Kontzientziak inarrosteko balio du, eta hortik hasten da iraultza.



ISABELLE MIQUELESTORENA / LE JOURNAL

NAFARROAREN EGUNA 2015
APIRILAK 26 BAIGORRI

elkarrekin irabazi nahi dugu etorkizuna

ehbildu

Guk taldeak 70eko hamarkadan ezagun egin zituen kantuak taularatuko dituzte bihar Baigorriko Kulturaldiaren barnean. Eskualdeko abeslari eta orkestrak parte hartuko dute ikuskizunean.

Betiko abestiak, soineko berriarekin

Pop abestiak orkestra bateko doinuen neurrian ikustea ez da horren ohikoa izaten. Instrumentuen arteko talka moduko bat dagoela dirudi. Horregatik egin zion «ilusioa» proiektuan parte hartzeak Jagoba Astiazaran konpositoreari. «Hori da *Guk ta guk-tarrak* ikuskizunaren berezitasuna, instrumentu klasikoetara moldatuta daudela abestiak». Abesti zaharrei soineko berria jarri diete. Juantxo Zeberio konpositorearekin batera egin ditu moldaketak Astiazaranek. Kantuak abesten, berriz, Baigorri eta inguruetatik hainbat artista arituko dira. Baigorriko Kulturaldiko ekitaldirik indartsuena da.

Joanes Borda eta Beñat Sarasolaren ekimenez sortu zen Guk taldea, 1968an, eta, handik urte batzuetara, Panpi Lakarriue, Pier Paul Berzaitz, Beñat Davant eta Eneko Labeguerie musikariak elkartu ziren. Garai horretako beste hainbat taldek egin zuten moduan, kantuak Euskal Herriko egoera politikoa salatzen baliatzen zituzten. Orotara, zapzi diskokaleratu zituzten.

Sona handia lortu zuen taldeak, batez ere, Ipar Euskal Herrian.

«Taldearen abestiak bereziki errotuak dituzte, Hegoaldean baino gehiago; guk gutxi ezagutzen genituen, eta ezagutzen genituenak doinu aldetik bakarrik egiten zitzaizkigun ezagun», azaldu du Astiazaranek.

Guk ta Guk-tarrak egiteko proposamena Basaizea elkarteak berak egin zion bi konpositoreei. Astiazaranek aitortu du atentzio handiena elkartearen gaztetasunak eman ziola. «Elkarteko kideak eta orkestrako musikariak gazteak dira, eta horrek erakarri gintuen».

Xare Laborategia oskestrak joko ditu kontzertuko abestiak. Hamahiru kidek osatzen dute, eta horietako gehienek Musikene goi

lean eta Musikagileak zikloan. Zinemarako ere egin dituzte abestiak, *Prohibido recordar* (Debekatuta dago oroitzea) filmerako adibidez. Berriki *Gure sor lekua* filmeko soinu banda ere jo zuten, Hazparden (Lapurdi) egin zuten berremanaldian.

Astebete, kulturaren jiran


Xare laborategiarekin batera, Aire Ahizpak, Asteazkeneoak eta Xenda Ahizpak ariko dira kantuan *Guk ta guk-tarrak* ikuskizunean. Baigorriko bertako gaiteroek ere joko dituzte pieza batzuk. Astiazaranek aurreratu duenez, orkestrak eramango du emanaldiko hari nagusia. Sustrai

Colina eta Fredi Paia bertsolariak, berriz, kantuak lotzeaz arduratuko dira.

Baigorriko kulturaldiari aurreko igandean ekin zitien, Ruper Ordeirikaren kontzertu akustikoarekin. Orain dela gutxi arte, hausnarketa gaualdiak antolatzen zizuten, baina, aurten, kulturalditik atera dute. Elkarteko kideek azaldu dutenez, urtean zehar antolaztea erabaki dute.



Miren, Amaia eta Paxkalin Aire Ahizpak, emanaldi batean. BOB EDME / LE JOURNAL



Sustrai Colina eta Fredi Paia bertsolariak. LUIS JAUREGALITZO / ARGAZKI PRESS



Aline eta Karine Etxeberri, Xendarineko ahizpak. B. EDME / LE JOURNAL



Taldearen abestiak bereziki errotuak dituzte hemen, Hegoaldean baino gehiago; guk gutxi ezagutzen genituen»

Jagoba Astiazaran
Konpositorea

mailako musika ikastegian egin zituzten ikasketak. Hainbat ziklotan parte hartu du orkestrak. Besteak beste, Bernaola Festiba-

GOLEMEN, ZINEMA... ZINEMA GUZTIA;
AZKEN ESTREINALDIAK EGILE ZINEMA
JATORRIZKO BERTSIOAN INDEPENDENTEA
EUROPAKOA, AFRIKAKOA, AMERIKAKOA,
ASIAKOA... ETA GUSTU GUZTIETARAKO

NAFARROA

golem basania
3 arto

golem gastiagueta
3 arto

golem le mores
3 arto

golem los llanos
3 arto

BIZKAIA

golem alhondiga
3 arto

golem

www.golem.net